

ahaldunak

Bidezko Merkataritzako emakumeak



© Creative Handicrafts



GOBIERNO
DE ESPAÑA



COORDINADORA ESTATAL DE
COMERCIO JUSTO

Edizioa: Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (www.comerciojusto.org)

Zuzendaria: Marta Lozano Sabroso

Erredaktorea: Marta Guijarro Ruiz

Azaleko argazkia: Creative Handicrafts

Diseinua eta maketazioa: Cyan, Proyectos Editoriales, S.A.

Lege-gordailua:

Lan honek Creative Commons Aitortu-Parketatu Berdin 3.0 Unported lizentzia du. Lizentzia honen kopia ikusteko, joan creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/es/web-orrira.

Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziaren finantza-laguntza-rekin egin da (AECID), 2018-PRY-1294 proiektuaren kontura. Edukiaren erantzule bakarrak egileak dira, eta ez du nahitaez jasotzen AECDen iritzia.



Aurrerapen motela

Aurrerapenak lortu badira ere, emakumeek eta neskek oraindik diskriminazioa eta indarkeria jasaten dute munduko toki guzietan. Pixkanaka gertatzen ari dira aldaketak, motelegi milioika emakumek egunero pairatzen duten bidegabeko errealitaterako. Nazioarteko erakundeek ekonomia, gizarte, lan eta giza garapenari buruz emandako datuak arretaz aztertuz gero, **genero desberdintasuna eztabaidezina dela** egiaztatzen dugu.

Eta hala da, lege esparruan gutxienez, 185 herrialdek, beren konstituzioetan genero-berdintasuna jaso, eta 187 herrialdek, Emakumeen kontrako diskriminazio era guziak ezabatzeko konbentzioa sinatu duten arren (Emakumeen NBERen arabera). Hala ere, arrakala handia da legedien eta gizarte-errealitatearen artean.

Baina lege arloan ere, gaur egun, 18 herrialdetan, senarrek legez eragotz dezakete emazteek lan egitea; 39 herrialdetan, alabek eta semeek ez dituzte jaunspen-eskubide berdinak; 49 herrialdek ez dute emakumeak etxean indarkeriatik babesten dituzten legerik.

➤ Gaur egun, 18 herrialdetan,
senarrek legez eragotz dezakete
emazteek lan egitea

Pobrezia eta lan desberdintasuna

Pobrezia ekonomikoak eragin handiagoa du emakumeengan. Datuek horrela berresten dute. Emakumeen NBERen arabera, mundu mailan, 25 eta 34 urte arteko 122 emakume daude muturreko pobrezia-egoeran bizitzen, adin-tarte bereko 100 gizoneko. Eta beste zifra esanguratsu bat: Emakumeek % 11 probabilitate handiagoa dute elikaduraren segurtasun falta izateko.



© P. Tosco/Oxfam Intermón

Errealitate horrekin lotuta dagoen datu bat da lurrik izatearena. Diotenez, emakume guztietatik, % 13 bakarrik dira lurren jabeak. Hala ere, garatzeko bidean dauden herrialdeetako nekazaritza eskulanaren % 43 gutxi gorabehera ekartzen dute. Lurren jabetza gehienbat gizonen eskuetan egoten jarraitzeak hainbat ondorio ditu emakumeentzat: Independentzia eta autonomia txikiagoa, partaidetza sozioekonomiko txikiagoa kooperatiba eta produkzio-taldeetan, elikaduraren segurtasun falta handiagoa, ahultasun ekonomikoa eta pobrezia.

Lan esparruan, emakumeek diskriminazio eta desberdintasun egoera orokorra bizi dute mundu osoan, hala ere, desberdintasunak daude eskualdeen artean. Herrialde gehienetan, emakumeek ,askotan, gutxiesten dituzten eta gaizki ordainduta dauden lanbideak dituzte. Horrez gain, zaittasun handiagoa ere badute hezkuntzara, lanbide-prestakuntzara eta lan-aukeretara sartzeko. Negoziatzeko eta erabakiak hartzeko ahalmena mugatua da.

Lanaren Nazioarteko Erakundeak amaitzen du adierazten oro har, gizonen eta emakumeen artean lan-merkatuaren partaidetzan dagoen desberdintasunak

behera egin duela 1995etik, baina oso gutxi. Gaur egun, emakume guztien % 50ak lan egiten du, gizonen % 77aren aldean. 1995. urtean, % 52 eta % 80 ziren hurrenez hurren.

Lanpostu bat hartzeko aukera, oro har, zailagoa da emakumeentzat gizonentzat baino, munduko eskualde batzuetan bereziki. Afrikako iparraldean, esaterako, nekazaritzakoa ez den sektorean ordainsaria jasotzen duten bost enpleguetatik, emakumeek bat baino gutxiago har dezakete. Asian, batez beste, emakumeek gizonek baino % 70 probabilitate txikiagoa dute lanean hasteko. Arrakala horrek jarraitzen du, hazkunde ekonomikoa gertatu, ugalkortasun-tasak txikiagotu eta hezkuntza maila handitu diren arren.

Eta emakumeek lanean jasaten duten diskriminazioa adierazten duen beste datuetako bat soldata-aldea da. Nazio Batuen arabera, emakumeek gizonek baino % 23 gutxiago irabazten dute batez beste. Edo beste modu batera esanda: emakumeek, gizonek irabazten duten dolar bakoitzeko 77 zentimo irabazten dituzte lan bera egiten.

➤ Emakumeek, gizonek irabazten
duten dolar bakoitzeko 77 zentimo
irabazten dituzte lan bera egiten

Hala ere, etxeko lanari eta ordaindu gabeko zainketei dagokienez, emakumeak dira erantzukizun horren zati gehienaz arduratzen direnak. Nazio Batuen arabera, emakumeek 2,6 aldiz denbora gehiago ematen dute lan hauetan gizonek baino.

Beste datu esanguratsu bat: ur berorik ez duten etxeetan, kasuen % 80an emakumeak eta neskak dira ura biltzen dutenak.

Halaber, emakumeen lan arloko errealtitate honen deskribapenean ezin gara ahaztu garrantzi bereziko gai batez: amatasunagatiko edo edoskitzaroagatiko estaldura. Azken hamarkadetan zenbait alderdi hobetu badira ere, emakume asko funtsezko eskubide honetatik baztertuta egon dira. Mundu mailan, emakumeen NBEk nabarmentzen du amatasunarengatik 14 asteko edo gehiagoko baimena ematen duten herrialdeen ehunekoa % 38tik % 51ra handitu dela. Bainan

800 milioi langile baino gehiagok, hau da, emakume guztien % 41ek, ez du oraindik amatasunaren estaldura egokirik.

Azkenik, botere politikoaren eta erabakiak hartzen diren esparruetan, ordezkari berdintasuna oraindik urrun dago emakume eta gizonen artean. Aurrerapenak egin badira ere, parlamentu nazionaletan % 24ko partaidetza dute, eta mundu osoko estatu-buruzagitzan % 7a bakarrik dira emakumeak. Ekonomiaren eta enpresen arloan errealityatea antzekoa da: **mundu osoko enpresetan, zuzendaritza-batzordeetako lanpostuen % 12 bakarrik betetzen dituzte emakumeek**, eta % 24 goi-zuzendaritzan.

Konpromisoa hartzen duten ekintza irmoak behar dira

Datu horiek, emakumeen egoera islatzen duten zati txiki bat baino ez dira, baina argi dago esparru guzietatik ekintza irmoak eta konpromisoa hartzen dutenak behar direla. Errealitate bidegabe hori ez delako, berez, aldatuko. Aldaketa eragin behar da, neurri politikoekin, sozialekin, hezkuntza arloko neurriekin, eta inbertsio ekonomikoarekin.

➤ Aldaketa eragin behar da, neurri politikoekin, sozialekin, hezkuntza arloko neurriekin, eta inbertsio ekonomikoarekin

Bestela, Munduko Ekonomia Foroaren aurreikuspenaren arabera, 100 urte beharko dira generoan dagoen arrakala ekonomiko eta politikoa ixteko, eta beste 217 urte emakumeek gizonek beste irabazteko eta lanpostuetan ordezkari berdinak izateko. Ezin dugu hainbeste itxaron. Generoen arteko berdintasuna ez da gizakiaren funtsezko eskubidea bakarrik; horrez gain, ezinbesteko oinarria da mundu jasangarri eta oparo baterantz aurrera egiteko.

Bidezko merkataritza: Genero-berdintasunaren aldeko apustu ausarta

Bidezko merkataritzaren mugimenduak erkidego behartsuak garatzea du helburu, eta bere funtsezko printzipioetako bat genero-berdintasuna da.



Printzipio horiek, bidezko merkataritzako erakundeek betar behar duten estandarrrean jasotzen direnek, emakumezko nekazariekin, langileek eta ekoizleek lan jardueran gizonen aukera berdinak izatea bermatzen dute; baita kasu guztietan, lan berdinarengatik, soldatua bera jasotzea ere. Horrez gain, finkatutako plan eta politika bat izan behar dute erakundeek genero-berdintasuna sustatzeko, emakumeek zein gizonek emankorrik izateko behar dituzten baliabideak eskura ditzaten, eta politiken eta erakundeen arloan ingurune zabalago batean eragiteko gaitasuna izan dezaten.



© Ideas

Halaber, bidezko merkataritzako erakundeetan, emakumeak kide aktiboak iza-tea, eta gobernu-egituraren lidergo posizioak gain hartzea sustatzen da. Bestalde, emakume guztiak dagozkien prestazio guztiak jasotzeko konpromisoa hartzen du erakundeak, eta haurdun edo edoskitzaroan dauden emakumeen osasun eta segurtasun behar bereziak kontuan hartzen ditu.

Hori horrela, eta Nazioarteko Gutunaren osagarri gisa¹, Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundeak beste Genero-politika bat argitaratu zuen. Horren bidez, erakundeek neurri zehatzak hartu behar dituzte genero-berdintasuna bermatze-ko. Horrez gain, hori egiteko moduari buruzko zuzentara uak ematen ditu.

Horrela gaur egun, Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundeko (WFTO) kideen artean, % 52 emakumeek zuzentzen dituztela esan dezakegu (ohiko merkataritzako % 9aren aldean). Goi-karguen artean, parekotasuna gainditu da: % 54 emakumeak dira (ohiko merkataritzan, % 24). Erakunde hauek ia milioi bat pertsona biltzen dituzte mundu osoan, eta 760 milioi euro baino gehiago sortu zituzten azken urtean².

Horrela, emakumeak baztertzen ez dituen eta partaidetza eta lidergoa bideratzen dituen eredu komertzial eta ekonomiko bat gara daitekeela frogatzen du bidezko merkataritzak. Emakumeen ahalduntzean inbertitzea eta berdintasunean aurreratzea, funtsezko eskubidea izateaz gain, gizarte-garapen iraunkorra ere bideratzen duela erakusten du bidezko merkataritzak.

1. <http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2018/09/Carta-Intern-Comercio-Justo.pdf>

2. Pertsonek eta planetan lehen tokian jartzen dituzten enpresa-ereduak. Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundeak. 2020. http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2020/01/Business_Models_Report-Spanish_0.pdf. Zifra horiek WFTOkoko kide diren erakundeenak bakarrik dira. Ez dira kontuan hartzen zenbait produktu egiteagatik bidezko merkataritzaren ziurtagiria dutenak.


BEGIRADA AZKARRA:

EMAKUMEAK BIDEZKO MERKATARITZAN

Ohiko
empresak



Bidezko Merkataritzaren
Mundu Erakundeko kideak

**Jardunbide egokiak**

Bidezko merkataritzako erakundeek nahitaez bete behar dituzte printzipio eta estandarrez gain, genero-berdintasunak aurrera egiten laguntzen duten beste jarduera batzuk ere garatzen dituzte.

Hauek dira jarduera horietako batzuk:

**Asian:**

- Baztertuen dauden emakumeak ahalduntzea, gizartetik baztertuen dau-denak, edo landa-eremuetan bizi direnak.
- Genero-estereotipoak ezabatzea, gizarte-ekonomiaren sektorean parte hartuz.
- Emakumeak bai familian, bai erkidegoan, ahalduntzea.
- Gizonak ahalduntzea, genero-berdintasuna susta dezaten.



Latinoamerikan:

- Emakumeen ezagutza nabarmentzeko eta ikusgai jartzeko eremuak garatzea.
- Emakumeei, dituzten balioak eta egiten duten lanaren garrantzia barneratzen laguntzen dieten prestakuntza-programak.
- Elkarlaneko testuinguruak bideratzea, emakumeen arteko harremanak indartzeko.
- Emakumeen eta genero-berdintasunaren eskubideak aldezten dituzten foroetan parte hartzea.



Afrikan:

- Prestakuntza eta gaitasunak garatzea, emakumeen beharretara egokitutakoan, kooperibetan eskubide osoz parte hartza eragozten dituzten oztopoak ezabatzeko.
- Presio politikoko ekimenak, generoari buruzko legedian aldaketak sortzeko.
- Emakumeentzako proiektu ekonomikoak garatzea, enpresa txikiak sortzen lagunduz.
- Emakumeei kredituak eskuratzen laguntzea, arrazoizkoak eta malguak diren interes-tasekin.



“Uste dut nire alabak eredutzat hartzen nauela”

© Sean Hawkey

Rosa Olivia Rizo Úbeda, Aldea Global elkarteko idazkaria (Nikaragua)

Rosa Olivia Rizo emakume gaztea da. Gaztea bada ere, eta testuinguru matxista batean bizi den arren, Aldea Global elkarteko biltzarra Zuzendaritza Batzordeko kide hautatzea lortu du. Biltzarrean, % 60a gizonak dira; % 40, emakumeak. Genero-berdintasunaren aldeko lan irmo bat dagoenean gertatzen ari diren aldaketen erakusgarria da bera. Hau da bere historia:

“2010. urtean egin nintzen Aldea Global elkarteko baziakide, 18 urterekin. Bazkiderik gazteena izan nintzen. Nire historia hasi zen aitak herentzia bat ematea erabaki zuenean: lur etxadi bat, nire izenean. Berme gisa hartu nuen nire lehen kreditua eskatzen. Osorik ordaintzea lortu nuenez, beste kreditu handiago bat lortu nuen. Horrela, orain, kreditu gehiago ditut, hainbat gauzatarako, hala nola komunak jartzeko, barazkiak eta kafea landatzeko. Nire kasuan, jabea nintzenez, lurra landu behar zen, eta neuk landu nahi izan nuen. Txikitatik beti gustatu zait lan egitea. Mendekotasun ekonomikoa ez dut gustuko; nire baliabidea izateak gehiago motibatu nau beti.

Hemen, Nikaraguan, kultura bat dago soroan: 14 urterekin neskak mutilekin joaten dira, haurdun geratzen dira eta beren ametsak zapuzten dira. Gero, etxeoandre

Alde Global, genero-berdintasunaren aldeko lan ausarta

Herrialdea:	Nikaragua
Eskualdea:	Jinotega
Ekoizten duen produktua:	kafea
Langile kopurua:	12.000 (% 60, gizonak; % 40, emakumeak)



Aldea Global bidezko merkataritzako kooperatibak konpromiso argia du duela urte asko emakumeen ahalduntzearekin eta genero-berdintasunarekin. Lan ausarta da, eta dagoeneko emaitzak ikusten ari dira.

bihurtzen dira, umeak zaintzean, eta askotan, ama ezkongabeak ere badira. Hori da honelako tokietan dagoen errealitatea. Gutxik ikasten dute, gutxik amesten dute profesionalak izatearekin, aurrera ateratzearrekin”.

“Bidezko merkataritzak arduratsuagoak egiten gaitu”

“Bidezko merkataritzari buruz hitz egitea gai garrantzitsua da, onura handiak ekartzen dizkiguten hiru ikuspegi dituelako: lehendabizi, ekonomikoa, kafea prezio hobean saltzeko aukera dugulako. Eta gero arlo soziala dago. Bidezko merkataritzan adingabeek ez dute lanik egiten, eta bidezko soldata ordaintzen zaie langileei. Eta funtsezko beste gai bat ingurumenarena da. Bidezko merkataritzarekin ingurumenaren, neska-mutilen eta langileen osasuna babesten dugu. Ez dute edozein sarga botatzen, askok minbizia eta larruazaleko beste gaixotasun batzuk eragin ditzaketelako. Egia esan, bidezko merkataritzak arduratsuagoak izaten laguntzen gaitu.

Hemen, Aldea Global elkartean, jarraipen berezia egiten zaie emakumeei. Kreditu arduratsuak eman dira eta lan handia egiten da emakumeen ahalduntzean, arlo ekonomiko eta finantzarioan. Halaber, finantza-gaikuntzak ere eman ziren, emakumeok ezagutza guztiak izan ditzagun eta diruaren ku-deaketen arduratsuagoak izan gaitezen. Emakumeak administratzaile ho-beak garela dioen esaera bat da, eta hori egia da, baina ezagutza ere izan behar dugu.

Bazkide izatetik zuzendaritza-batzordeko kide izatera

Zuzendaritza-batzordeko kidea izateko, prozesu batetik igaro behar duzu: biltzar aurrekoan eremuko ordezkaria hautatzen da, eta nire eremuan (San Rafael), ni aukeratu ninduten ordezkari. Gero, biltzar orokor batera joan ginen, Jinotegan, 60 ordezkari osatzen dutena. Han zeudenek hauxe esan zuten: "neskatxa hori zuzendaritza-batzordeko kide gisa gustatzen zaigu", eta idazkari kargua eman zidaten. Erabakiak hartzeko, hil bakoitzaren bigarren ostiraletan biltzen gara, eta baita behar denean ere. Hauek dira lantzen ditugun gai nagusiak: nola dagoen gure eremua, nola dauden ekoizleak, zer behar duten hobetzea, zer geratzen den egiteko... Geuk proposamenak eramatzen ditugu, eta ekoizleek adierazitakoa oso kontuan hartzen dute.

Emakume gisa nire lana zortea da, ia inoiz ordaintzen ez duten emakumeen lana sustatu behar dudalako, batik bat nirea bezalako herrialdeetan, eta are gehiago testuinguru honetan, non emakumeak etxearen egon behar duela uste baita, seme-alabak zaintzen, gizona...Baina arrakala hori apurtu behar dugu, emakumeak bestelako lanak ere egin behar dituela, bere diru-sarrerak izan, hori ere ekarpena izango delako familiaren ekonomiarako".

Iragana, orain eta etorkizuna

"Nire ama beti izan da emakume borrokalaria; beti izan du gauzak berak bakarrik egiteko gogo handia. Nire eredua da. Lehen emakumeak ia ezi ziren etxetik irteten, Nikaraguan matxismo arazo larriak ditugulako, eta ezin zuten ez erabaki, ez hitz egin. Orain arrakala asko apurtu dira, eta emakumea gizartean izan behar duen garrantzia lortzen ari da pixkanaka.

Nire alabak biziko duen garaia hobea izango dela uste dut. Emakumeek garapen handiagoa izango dute. Berak ere eredu bat gisa hartzen nau ni. Askotan gurasoak ereduak gara. Guk bizitzeko dugun moduak gure seme-alaban hazkuntzan eragiten du. Nire alabak badaki lan egiten dudala eta bileretara joaten naizela. Batzuetan nirekin eramatzen dut, baina saiatzen naiz ez egiteko, motorrez noalako eta arriskutsua da".



“Merkataritza-estrategiaz harago, emakumeen autonomia da lortu nahi duguna”

© Creative Handicrafts

Anjali Tapkire, Creative Handicrafts erakundeko langilea (India)

Creative Handicrafts ehungintza-erakundeko sortzailea den Isabel Martinekin elkartu zen lehen emakumeetako bat izan zen Anjali Tapkire, erakunde hori sortzeko eta marjinatutako auzoetako (slum-ak direlakoak) emakumeei laguntzeko. Bere historia Indiako emakume gehienek bizi dituzten aurreiritzi eta gizarte-eragopenerak gainditu dituen emakume baten erakusgarria da. Horrela, prozesu hori guztia nolakoa izan den kontatzen du:

“Hasieran, aurkitu genuen lehen zaitasunetako bat senarrak izan ziren. Ez zituzten lan egiten uzten, beraien ustez, emakumeek etxearen behar dute-lako, seme-alabak eduki, baina kalera irtetea ez, hala eginez gero, aldatuko diren beldur direlako. Ez dute nahi beren nortasuna garatzea, erantzuten, eztabaidatzen, arrazoitzen, erabakiak hartzen has daitezkeelako bestela. Eta hori zen gertatzea nahi ez zutena. Gure helburu bakarra emakumeek lan bat izatea eta familiarentzat diru-sarrerak heltzea besterik ez zela uler zezaten saiatzen ginen.

Creative Handicrafts: Indian emakumea izatearen duintasuna

Herrialdea:	India
Hiria:	Mumbai
Ekoizten dituen produktuak:	etxerako arropa eta ehunak
Langile kopurua:	270 emakume (noizean behin 400 gehiago kontratatzentzituzte)

1984. urtetik, Creative Handicrafts erakundea emakumeen independentziaren arloan lan egiten ari da, bidezko merkataritzaren printzipioei jarraituz ekoizten.



Konfiantza faltatik, kostuak kalkulatzera

Emakumeek, zehazki, jaiotzen direnetik zaitasun askori egin behar diente aurre, eta hori dela eta, oso malguak dira nire ustez. Creative-n lanean hasten direnean, *slum*-etan bizi diren emakume askok ez dute konfiantza beren buruaren-gan. Baina lanean egoteak, beraiek eskuz egiten dituzten produktuak jendeak eroosteak, autoestimua berreskuratzen laguntzen diente. Horrez gain, emakumeek elkarrekin lan egitea, taldean, terapia da eurentzat, hitz egin behar dutelako, beren egoera partekatu, eta horri esker, aurrera egin dezakete. Bestalde, arazoak gainditzen ere laguntzen die.

Emakumeek, lanean hasten direnean, ezertarako ez dutela balio eta ezer ez dakitela egiten uste dute. Ez dute beren burua gai ikusten ezta mota honetako bordatuak edo jantziak egiteko ere. Gainera, emakume askok ez dakite hindiz hitz egiten. Bakoitzak bere eskualdeko bertako hizkuntza erabiltzen du. Niretzat urrets handia izan zen hindi ikastea, merkatuetara joan ahal izatea, tokiz aldatzea, bakarrik bidaiatzea.

Creative Handicrafts erakundeak nortasuna ematen die emakumeei. Erakundea heldu aurretik nortasunik ez zuten pertsonak dira. Jaio dira eta bizitza bat daukate aurretik, baina ez dute nortasunik. Nik neuk nortasun bat dut Creative erakundean nagoenetik.

Gaur egun, 12 kooperatibek osatzen duten Creative, eta haietako bakoitzean 25 emakumek lan egiten dute. Lehen adierazitako hasierako egoera horretatik

abiatur, orain, kooperatiba bakoitzean, eskaera bat heltzen denean, plangintza egiteko, kostuak eta zenbat oihal erosи behar den kalkulatzeko, zenbat denbora iraungo duen, jantzi horiek egiteagatik zer irabazi lortuko den jakiteko gai dira. Hori da gertatu den aldaketa handia.

Ni neu emakume batengan gertatzen den aldaketa handiaren adibidea naiz. Mumbaitik bakarrik bidaiatzen dut, eta Espainiara ere etorri naiz. Eta hemen zurekin ari naiz ingelesez hizketan. Aldaketa hau ikusgarria iruditzen zait.

Aseguru medikoa, amatasun estaldura eta gehiago

Erakunde baten merkataritza-estategiaz harago, Creative gisako erakunde bat-ean, emakumeen autosufientzia lortzea da helburua, eta horrek, garapena eragiten du emakumeen beste arlo batuetan. Gure erakundean, ohiko merkataritzan normalena egoten ez diren lan-ildoak ditugu. Esaterako, mikrokredituak ditugu, emakumeek kredituak interes baxuarekin eskuratzeko aukera izan dezaten, zailtasun ekonomikoei aurre egin diezaieten. Lehen beste mota bateko mai-leguetara jo behar genuen, interes oso handiekin. Halaber, haurtzaindegia bat daukagu emakumeen umeak egoteko, eta eskolako bekak, emakumeek pres-takuntzarik jaso ez badute ere, garrantzi handiagoa ematen diotelako seme-ala-bek ikasteari. Horiek guztiak langileek jasotzen duten soldatari gehitutako aban-tailak dira.

Batzuek laguntzak ere jasotzen dituzten beren negozioa abian jar dezaten. Bes-talde, aseguru mediko bat ere badugu, eta horri esker, ordaindutako bajak izan ditzakegu gaixotasunen bat badago. Lagunza berezia dago emakume haurdu-nentzat, eta berezko sistema bat garatu dugu erretiro bat izan dezaten. Horiek dira soldatza gain, bidezko merkataritzan lan egiteagatik jasotzen dutenaren adibide batzuk. Horrela, lan-baldintza egokiak ere bermatzen dira, noski".



“Emakume
batek bere
kabuz aurrera
ateratzeko
baliabiderik ez
dutela dioen
mitoarekin
amaitzea lortu
dugu”

© Ronny Hermosa

Amina Ait Taleb, argana ekoizten duen kooperatiba bateko presidentea (Maroko)


Marokoko landa-eremuan, Agadir-en, pobrezia eta emakumeak gizartetik baztertuta dauden testuinguruan, Amina Ait Talebek, emakumeen beste kooperatiba batzuen esperientzia ezagututa, bere kooperatiba sortzea erabaki zuen, eta gizarte mito eta tabuak apurtzea lortzen ari da. Bere kooperatiba beste antzeko batzuekin bat egiten ari da. Horrela, garapen ekonomikoa, emakumeen ahalduntzea eta genero-berdintasuna lortzen ari da.

“Gure herrixako eta gure kooperatibako emakume gehienak familia behartsuetatik dator. Emakumeok kooperatiba sortu genuenean, gizonak ez zeuden ados gu etxetik irtetearekin eta lan egitearekin. Elkarteei, prestakuntza-tailerrei eta erakundeei laguntzari esker, pentsamoldeak sortzeko eta emakumeak zein haien senarrak aldaketa horretaz konbentzitzeko gai izan gara. Denbora asko behar izan genuen emakumeak beren etxeetatik atera eta kooperatibetara etor zitezken konbentzitzeko. Hori horrela, bertako beste kooperatiba batzuetara egin genituen bisitek ere asko lagundu zuten. Emakumeak argan-olioa ekoizteko eta

Targanine, emakumeez bakarrik osatuta dagoen erakundeak

Herrialdea:	Maroko
Eskualdea:	Agadir
Langile kopurua:	550 emakume, 6 kooperatibetan bilduta
Ekoizten dituzten produktuak:	argan olia eta produktu kosmetikoak

6 emakume kooperatibek osatzen dute Targanine Interes Ekonomikoko Taldea. Bidezko merkataritzarekin duten konpromisoari eta jarduerari Ester, emakumeen ahalduntzea eta tradizioz lotutako rolekin apurtzea lortu du.



Komertzializatzeko gai direla ikustean, aldaketa posible dela eta beraiek ere lor dezaketela egiaztatzen dute.

Kooperatibaren proiektuei esker, emakumeek etxean egon behar duten ideia gainditu ditu, eta gaur egun, zenbait sektoretan lan egiten ari dira, hala nola ne-kazaritza edo turismoa.

Kooperatibak tabu bat gainditu du: etxea lan egiteko uztea. Lehen, emakume batek bidaiatzea tabutatz hartzen zen, baita herri batetik bestera. Orain emakumeek bidaiatzen dute, bileretara joaten dira eta libreki mugitzen dira. Lehen zaila zen, izan ere, ez zuten inolako diru-sarrerarik beraientzat. Kooperatibari esker, dirua irabazten hasi ziren, eta horrekin independentzia ere lortu dute. Beraientzat lan batek finantza-independentzia ekartzen du.

Hemen, gure eremuan, emakumeentzako erakunde batez gain, non brodatzen ikasten duten, ez dago beste aukera profesionalik eskualdeko emakumeentzat. Neuk erakunde horretan lan egin nuen, eta kooperatiba martxan jartzen animatu gintuen elkarte baten prestakuntza eta laguntza jaso nuen. Nire ametsa nire es-kualdearen garapenean laguntzeko aukera ematen zigun eremu batean lan egitea zen. Guretzat erronka handia izan zen; lehendabizi, emakumeak beren etxeetatik ateratzeko, eta gero, proiektu hori arrakasta komertziala izatea ziurtatzeko.

Gaur egun gai gara libreki lan egiteko eta gure proiektua aurrera eramateko, % 100 emakumeen proiektua dena. Horrez gain, emakume batek, berez, arrakastarekin aurrera ateratzeko baliabiderik ez duela dioen mitoa apurtzea ere lortu dugu. Nire aholkua da emakumeak beren etxetik irtetea eta lanera joatea. Horrek, independentzia ekonomikoa emango die, lan-esperientzia hartuko dute eta autonomia handiagoa izango dute beren familiengandik".

Mundu osoan. Beste ekimen batzuk

Bidezko merkataritzako beste erakunde batzuen esperientzia jasotzen dugu hemen. Bidezko merkataritzaren printzipioei jarraituz, eta beraz, emakumeen ahalduntzea sustatzetik genero-berdintasunari aurrera egiten lagunduz, 75 herrialde baino gehiagotan lan egiten duten 2.000 erakunde ekoizle baino gehiagoren eredu batzuk baino ez dira.



Latinoamerikan

Perun, Piura Nekazaritza Kooperatiba Ekologiko eta Solidaria (CAES Piura):

Kanabera-azukrea ereiten duten 200 pertsona inguru biltzen ditu. Bere jarduerari esker, tradizioz, etxeko esparrura mugatu diren emakumeek, panelaren produkzio eta prozesatze lan askotan lan egiten dute. Funtzionario-mendu demokratiko batekin, bere balioen artean ekoizleen ahalduntzea nabarmentzen da. Kooperatiban erabakiak hartzen parte hartzen dute, eta estatutuetan zuzendaritza-batzordeetan emakumeak nahitaez egon behar dutela ezartzen da.



Uruguain, Manos del Uruguay:

Moda ekoizten duen erakunde, landa-eremuetaiko 12 artisau-kooperatibez osatutako. Kooperatiba bakoitza 20 emakume inguruz osatuta dago, eta haria tindatzen eta jantziak eta etxeko ehunak eskuz ehuntzen aritzen da, kalitate handikoa. Bere eginkizun nagusia bizirauteko baliabideak eta langileen garapen pertsonalerako aukerak sortzea da. Irabazi guztiak ekoizleen artean banatzen dira, eta erakundean bertan berrinbertitzen dira. Gaiak esportatzeaz gain, bi denda handi ere badituzte Montevideon.



Asian

Nepalen, Mahaguthi kooperatiba:

Mila artisau baino gehiago biltzen ditu, emakumeak gehienak, ekoizpen-talde txikietan antolatuta. Haietako asko herrialdeko eremu isolatuetan bizi dira. Bere helburua lan-baldintza seguru eta duinak bermatzea da.



Emakumeentzat, Mahaguthin egindako lana ez da onuragarria bere egoera ekonomikorako bakarrik, egoera pertsonalerako ere bai. Beren konfiantza eta autonomia maila handitzen dira, eta horri esker, eskubideak negozia ditzakete etxe barruan eta kanpoan; baita beren erabakiak hartu ere. Beren soldata irabazteak, familian eta gizartean duen rola hobetzen laguntzen du, eta jarraitu beharreko eredu bihurtzen dira beste emakume batzuentzat eta haien seme-alabentzat.

Indonesian, Pekerti:

Pekerti 1975. urtean sortu zen saskiak, osagarriak, kaxak eta zurezko beste gai batzuk egiten dituzten 50 artisau-talde baino gehiagori laguntzeko. Erakunde honek emakumeen genero-berdintasuna eta ahalduntzea sustatzen du, emakumeen kontratazioa bultzatzuz, beren lidergoa eta erabakietan parte hartzea sustatzuz, prestakuntza eta garapen pertsonaleko ekimenak eginez, eta amatasun eta edoskitzaroko bajak emanez.



Afrikan

Etiopian, Sabahar:

Sabahar emakumeek kudeatzen duten enpresa bat da. Bertan, 43 emakumek eta 32 gizonek lan egiten dute, ehungintzako, kotoizko eta zetazko produktuak fabrikatzen dituztenak. Langileak gizarte-klase marjinatuetaik datoz, kalean bizi-takoak dira, eta oinarrizko prestakuntza-mailak



dituzte. Autoestimu baxuarekin eta etorkizuneko itxaropen gutxirekin heldu ziren Sabahar-era.

Balioen artean emakumeen ahalduntzea, iraunkortasuna, berrikuntza eta elkarre-kiko zainketa nabarmentzen dira. Genero-berdintasunaren aldeko ekimenak garatzen dituzte, hala nola diskriminazio positiboa, emakumeen lana ikusgai jartzea edo genero-aurreiritzie aurre egiteko eta emakume eta gizonen jarrera kalandatzeko ekintzak egitea.



Kenian, Machakos Cooperative Union (MCU)

Kafean aritzen diren 81 kooperatiba txiki-ren eta artisauen produkzio-taldeen batasuna. Guztira, 40.000 pertsona biltzen ditu. MCUk emakumeen genero-berdintasuna eta ahalduntzea sustatzen du, produktuen lanketan, egitean eta komertzializazioan

dutent partaidetza handitz. Gizonen eta emakumeen arteko oreka bideratu da lanpostu orokorretan eta zuzendaritzakoetan. Horrez gain, emakumearen lan-eskubideak onartzten ditu, eta dagozkien prestazio guztiak jasoko dituztela bermatzen du. Bestalde, haurdun edo edoskitzaroan dauden emakumeek osasun eta segurtasun arloan dituzten behar bereziei erantzuten diente. Zentzu horretan beste ekimenetako batzuk dira emakumeen gaitasunak garatzen laguntzeko prestakuntza, kredituetarako sarbidea erraztea eta generoari eta politika publi-koak ekintza zehatzarekin lerrokatzeak duen garrantziari buruzko legedian era-giteko presionatzea.

Gehiago jakiteko

Argitalpenak

- **Bidezko merkataritzako 9. koadernoa. Emakumeak ahalduntzen dituzten merkataritza-jardueraren ereduak».** Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea/Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea. 2019. <http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2019/03/CUADERNO-9-FINAL.pdf>
- **Bidezko merkataritzako 10. koadernoa. «Genero-berdintasuna eta emakumeen eskubideak lan-esparruan»** Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea/Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea. 2019. <http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2019/03/CUADERNO-10-FINAL.pdf>
- **Ekonomia berria sortzen. Pertsonak eta planeta aurretik jartzen dituzten enpresa-ereduak.** Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea. 2020. http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2020/01/Business_Models_Report-Spanish_0.pdf

Web-orriak

- **Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea:** comerciojusto.org
- **Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea:** www.wfto.com
- **Garapen iraunkorreko helburua. PNUD:** <https://www.undp.org/content/undp/es/home/sustainable-development-goals.html>
- **Emakumeen NBE:** <https://www.unwomen.org/es>

Zer egin dezakezu zuk?

→ **Zure erosketetan aukeratu berdintasun-baldintzetan, emakumeak baztertu eta lanean esplotatu gabe egindako produktuak.** Aukeratu jarduera ekonomikoaren gune nagusi moduan pertsonen eta ingurumenaren zainketa duten produktuak, bidezkoagoa den gizarte bat finkatze aldera, hala nola bidezko merkataritzako produktuak.

Non aurki daitezke bidezko merkataritzako produktuak?

Dendetan eta Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundearen erakundeeek kudeatutako saltokietan: www.comerciojusto.org

- **Lagundu voluntario gisa** bidezko merkataritzako erakunde eta dendetan.
- **Denda, establezimendu edo empresa bat badaukazu, egin apustua bidezko merkataritzako produktuen alde**, banatzeko edo merchandising elementu gisa.
- **Hezkuntzaren arloan lan egiten baduzu, landu honelako gaiak zure ikasleekin.** Gure web-orriko baliabideen zentroan, baliabide didaktikoak, bideoak eta jardueren proposamenak aurkituko dituzu.
- **Informa zaitez:** egon adi bidezko merkataritzako mugimenduaren kanpainei eta ekimenei gure web-orriaren eta gizarte-sareen bidez.
- **Zabaldu:** harpidetu aldizkari elektronikora eta bat egin gizarte-sareetan. Zabaldu beste pertsona batzuei ekonomia feminista bat abian dela.

comerciojusto.org

 @CEComercioJusto  facebook.com/CEComercioJusto

Coordinadora Estatal de Comercio Justo.
c/ Gatztambide, 50. Madrid 28015.
Teléfono: 91 299 38 60





Teléfono: 91 299 38 60
c/ Gassetmilde, 50. Madrid 28015.
Coordinadora Estatal de Comercio Justo.

@CEComercioJusto facebook.com/CEComercioJusto

comerciojusto.org

- ← **Difundelo:** Unete a nuestras redes sociales y boletín electrónico, y difunde a otras personas que hay una economía feminista en marcha.
- ← **Infórmate:** Mantente al tanto de las campañas e iniciativas del movimiento Comercio Justo a través de nuestra web y redes sociales.
- ← **Si trabajas en educación, aborda este tipo de temas con tus alumnos o alumnas.** En el centro de recursos de nuestra página web, podrás encontrar recursos didácticos, videos y propuestas de actividades.
- ← **Si tienes una tienda, establecimiento o empresa, apuesta por promociones y voluntariado.** Para su distribución o como elementos de merchandising.
- ← **Colabora como voluntario o voluntaria** en organizaciones y tiendas de Comercio Justo.
- En las tiendas y puntos de venta gestionados por las organizaciones de la Coordinadora Estatal de Comercio Justo: www.comerciojusto.org
- ← **¿Dónde encontrar los productos de Comercio Justo?**
- En tus compras, elige productos elaborados en condiciones de igualdad, sin discriminación de las mujeres ni explotación laboral. Elige productos donde el cuidado de las personas y el medioambiente estén en el centro de la actividad económica, consolidando una sociedad más justa y equitativa, como los productos de Comercio Justo.

¿Qué puedes hacer tú?

Para saber más

Publicaciones

- Cuaderno de Comercio Justo nº 9. «Modelos de actividad comercial que empoderan a las mujeres». Coordinadora Estatal de Comercio Justo/ Organización Mundial del Comercio Justo. 2019. <http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2019/03/CUADERNO-9-FINAL.pdf>
- Cuaderno de Comercio Justo nº 10. «Igualdad de género y derechos de las mujeres en el ámbito laboral». Coordinadora Estatal de Comercio Justo/Organización Mundial del Comercio Justo. 2019. <http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2019/03/CUADERNO-10-FINAL.pdf>
- Creando la nueva economía. Modelos emprendedores que ponen a las personas y el planeta en primer lugar. Organización Mundial del Comercio Justo. 2020. http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2020/01/Business_Models_Report_Spanish_0.pdf
- Coordinadora Estatal de Comercio Justo: comerciojusto.org
- Organización Mundial del Comercio Justo: www.wfto.com
- Objetivos de Desarrollo Sostenible. PNUD: <https://www.undp.org/>
- Contenidos/undp/es/home/sustainable-development-goals.html
- ONU Mujeres: <https://www.unwomnen.org/es>

Páginas web

Unión de 81 pedoqueras cooperativas cafeteras y lerayas y grupos de productores artesanales. En total agrupa a 40.000 personas. MCU promueve la equidad de género y el empoderamiento de las mujeres mediante el arte- miento de su participación en el cultivo, el au- boración y comercialización de su producción. Se ha favorecido el equilibrio entre hombres y mujeres en los puestos de trabajo y de dirección. También reconoce los derechos laborales de la mujer y garantiza que estas reciban todas las pre- taciones que les corresponden, así como las necesidades especiales en materia de salud y seguridad de las mujeres embarazadas y en periodo de lactancia. Otras de sus iniciativas en este sentido son la formación para facilitar el desarro- llo de las capacidades de las mujeres, favorecer el acceso a créditos y presionar para influir en la legislación sobre género y sobre la importancia de alinear las políticas públicas con la acción concreta.


(MCU)

En Kenia, Machakos Cooperative Union



Entre sus valores destacaan el empoderamiento de las mujeres, la sostenibilidad, la innovación y el cuidado mutuo. Desarrollan distintas iniciativas en favor de la igualdad de género como la discriminación positiva, la visibilidad del trabajo de las mujeres o acciones para enfrentar los prejuicios de género y así cambiar actitudes de mujeres y hombres.

que han vivido en la calle y que tienen nivales de formación básicos. Llegaron a Sabahar con la autoestima basia y pocas esperanzas de futuro.



